

**KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN TXOSTENA, KULTU ARETOEI
BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.**

Tramitagune -DNCG_LEY_89422/2016_01

Ekainaren 30eko 14/1994 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzkoa) erregulatzen du ekonomia- eta kontabilitate-kontrola, III. tituluko IV. kapituluan. Kontrol hori nahitaezkoa da, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eginiko txostenaren bidez gauzatzen da.

Kontrol horretan sartzen da, ekonomiari eta antolamenduari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko organo ororen eraketa zein ezabaketa fiskalizatzea, bai eta organo horien aldaketak eta berregituraketak fiskalizatzea ere.

Honako txosten hau egiteko, xedapen hauek hartu ditugu kontuan: aipatutako araua, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren (Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen) III. kapituluko 3. atala, eta apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren (Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen) 4.a) artikulua.

TXOSTENA:**I. XEDEA**

Txosten honen helburua da goiburuan agertzen den proiektuaren ekonomia- eta arau-kontrola egitea. Proiektuaren helburua, hain zuzen, *hiri-antolamenduko planetan erlijio-erabilerako ekipamendu kolektiboetara bideratutako lurzorua erreserbatzen direla bermatzea da, baita kulturako edo beste erlijio-helburu batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko baldintza tekniko eta materialak zehaztea ere.*

II. AURREKARIAK ETA ESPEDIENTEAN SARTUTAKO DOKUMENTAZIOA.

Hasteko, adierazi behar da aipatutako aurreproiektua ez dagoela berariaz jasota X. legegintzaldiko (2012-2016) legegintza-egutegian (Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2013ko ekainaren 13ko erabakiz onartua),¹ baina hori ez da oztopo aurreproiektua izapidetzeko.

Bestalde, aztertutako aurreproiektuaren prozedura hastea agintzen duen Dekretuak, justifikatzeko memoriak eta zioen azalpenak adierazten dute, ekimen hau oinarritzeko beste erreferente batzuen artean, lege-hutsunea dagoela kultu-aretoak irekitzeari dagokionez. Horren ondorioz, udalek irizpide desberdinak erabili dituzte izaera horretako aretoei lizentziak emateko; horrek erakusten du araudi-

¹ Era berean, aurreproiektua ez da aipatu legegintza-egutegi horren seihilekoaren jarraipena egiteko azken erabakian (Jaurlaritzaren Kontseiluak 2016ko otsailaren 2ko bilkuran onartua).

eredua ez dagoela zehaztuta edo ez dela nahikoa, eta, beraz, arauaren hartzaileentzako segurtasun juridikoa murrizten da. Estatu-mailako Lurzoruari buruzko Legeak (8/2007) eta erkidego-mailako Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak (ekainaren 30eko 2/2006) ez dituzte ezartzen aplikatu beharreko arau zehatzak kultu-lekuak antolatze eta irekitzeko. Erljio-izaerako aretoetarako ekipamenduen erreserba orokorra aurreikusten dute. Hortaz, beharrezkoa da gure autonomia-erkidegoa kultu-espazioei eta -aretoei buruzko araudi espezifiko batez hornitzea, espazio horiek eduki nahi dituzten izaera horretako komunitateen erlijio-askatasunerako eskubidea babesteko, eta administrazio publikoei kudeaketarako irizpide egokiak eta irmoak emateko hirigintza-planeamenduaren esparruan, oro har, areto horiekin lotutako eskaerak administratzeko.

Horri erantzute aldera, espedientean sartutako dokumentaziotik ondorioztatzen denaren arabera, aurreko legegintzaldian izan zen ekimen arautzaile bat, baina ez zen iritsi, ordea, bere ibilbidean zehar, lege-proiektu bat onartzera.

Gaur egun, adierazitako arrazoiek beren horretan jarraitzen dutenez, ekimen horri berrekin zaio, dagokion espediente hasi da eta honako dokumentazio hau igorri da bulego honetara (*Tramitagune izapide elektronikoak egiteko aplikazio informatikoaren bidez - DNCG_LEY_89422/2016_01*), besteak beste, horren gaineko ekonomia- eta arau-kontrola egiteko:

1.- *1/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, lehendakariarena, Kultu Aretoei buruzko Legearen aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agintzen duena.*

2.- *Aurreproiektuaren azalpen-memoria, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiarena (elektronikoki izenpetua 2016/02/03an).*

3.- *Genero-ikuspegiari dagokionez garrantzirik ez duela adierazten duen justifikazio-txostena, 2016/02/18koa, Lehendakariaren Berdintasunerako Administrazio Unitatearena.*

4.- *7/2016 Dekretua, otsailaren 24koa, lehendakariarena, aipatutako lege-aurreproiektuaren testuari alde aurretik onarpena eman diona.*

5.- *Egindako lege-aurreproiektuaren 1. bertsioari dagokion testua (espedientean sartua 2016/02/26an); espedientean dagoen analisi juridikoko txostenaren arabera, 2011n landutako ekimen arautzailearen arau-testu berbera proposatzen du².*

6.- *Analisi juridikoaren txostena, Lehendakariaren Erregimen Juridikoko Zuzendaritzarena (elektronikoki izenpetua 2016/02/26an).*

² Kasu hartan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kultu Aretoei buruzko Legearen aurreproiektuari zegokion testua onartu zen, Justizia eta Herri Administrazioen sailburuaren 2011ko azaroaren 25eko Aginduaren bidez.

7.- *Lege-aurreproiektuaren 2. bertsioari dagokion testua (espedientean sartua 2016/02/26an), aurreko 5. puntuarekin lotutako analisi juridikoaren txostena igorri ondorengoan.*

8.- *2016/03/01eko Ebazpena, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiarena, Kultu Aretoei buruzko Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzen duena, eta 2016/03/10eko EHAAn (48. zk.) argitaratu izanaren egiaztatzea.*

9.- *Lege-aurreproiektuaren 2. bertsioa berregiteari dagokion testua (espedientean sartua 2016/03/10ean).*

10.- *Ofizioak (2016/03/10ekoak) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari txostenak eskatzekoak.*

11.- *Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena (elektronikoki izenpetua 2016/03/18an).*

12.- *Alegazioen idatziak (biak ere holografoak) 2016/04/05ean izenpetuak, Bilboko Gotzaindegiarena eta Fernando Isidro Fernández Osorio jaunarena.*

13.- *Oharren idatzia, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Zerbitzu zuzendariarena (elektronikoki izenpetua 2016/04/07an).*

14.- *Egindako lege-aurreproiektuaren 3. bertsioari dagokion testua (espedientean sartua 2016/05/12an).*

15.- *Ofizioa (2016/05/12koa), bulego honi txostena eskatzekoa.*

III. AZTERKETA

Bidalitako agiriak aztertu ondoren, uste dugu bat datozela urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen) 42. artikuluko aurreikuspenekin, eta agiri horiek informazio nahikoa biltzen dutela bulego honek ekonomia-kontrola egin dezan, ekainaren 30eko 14/1994 Legearen (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa) 25., 26. eta 27. artikuluen arabera.

A) Prozedura eta izapidetzea:

A1)- Bidalitako dokumentaziotik, espedientean dagoenetik, ondorioztatzen da proiektatutako dekretua egiteko prozeduran ez direla bete osorik xedapen orokorrak egiteko betebeharrak. Betebehar horiek abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezartzen ditu. Hain zuzen, antzemandako gabezia horiek zuzendu egin behar dira, hala nola, honako hauek:

a)- Ez dago Euskadiko Udalen Elkartearekin (EUDEL) entzute-izapidea egin izanaren egiaztagiririk; lege-aurreproiektuaren erregulazioak Euskal



Autonomia Erkidegoko udalen eskumenei zuzenean eragiten dienez, hori eskatzen du abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.3 artikulua, eta lehendakariaren otsailaren 2ko 1/2006 Dekretuaren seigarren xedapeneko 5. puntuak (Kultu Aretoei buruzko Legearen aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agintzen duena).

b).- Ez dago Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari kontsulta egin izanaren egiaztagiririk, haren eskumenak aintzat hartuta, Etxebizitza Sailburuordetzaren bidez, hirigintza-antolamenduko eta lurzoru publikoko arloetan.

c).- Ez dago Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostenik, nahiz eta hori eskatzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005) 21. artikulua.

Horri dagokionez, espedientean agertzen den dokumentazioak zera adierazten du: *lege-aurreproiektu hori buruz Emakundek egindako txostenaren arabera (2011ko abenduaren 27koa), aurreproiektuari ez zaio egin behar Generoaren arabera Eraginaren txostena; izan ere, erakunde horren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko otsailaren 13ko Erabakiaz onartutako jarraibideetako lehenaren 2. zenbakiko a) letran aurreikusitako salbuespena aplika dakioke (jarraibideak, generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeak eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ezabatu eta berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeak). Alderdi hori ez da zalantzan jarri. Hala ere, ez dira argitzen txosten hori eskatzeko betebeharririk ez izateak ipso facto Emakundek prozeduran parte ez hartzea ekartzeko arrazoiak.*

Generoaren arabera eraginaren txostena eskatu behar ez izatea (edo nahi izanez gero, horretarako salbuetsita egotea) egokitu egin behar denez une bakoitzean aplika daitekeen generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeak eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ezabatu eta berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeak jarraibideen esparrura, aipatu egin behar dira Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21ko Erabakiak onartzen dituen jarraibideak [2012ko irailaren 25eko EHAAn argitaratuak (187. zk.), Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren 40/2012 Ebazpenaren, abuztuaren 21ekoaren, bidez].

Jarraibide horietako lehenengoaren 2. zenbakiak, generoaren arabera eraginari buruzkoa izatean, salbuetsitako kasuak zerrendatzen ditu, eta honela bereizten ditu: izaera orokorrekoak [1) *puntua, a), b), c) eta d) letrak*], administrazio-ekintzen proposamenak [2) *puntua, a), b) eta c) letrak*] edo kontratu publikoak [3) *puntua*].

Esku artean dugun arau-proiektuaren tipologia, izaera orokorreko xedapena, arestian aipatutako lehenengo jarraibideko 2. atalaren 1) puntuan sartuko nuke. Horren baitan, ematen du ez dela lotzen b) [funtsean



antolakuntzakoak diren xedapenei buruzkoa], c) [dagoeneko indarrean dauden arauak bateratzea xede duten proiektuei buruzkoa] eta d) [indarrean dauden beste arau batzuk aldatzeko proiektuei buruzkoa, aldaketak emakumeen eta gizonen egoerari funtsean eragiten ez badio] letretan aurreikusitakoari; izan ere, horietan generoaren arabera eraginari buruzko txostena ez eskatzeak edo horretatik salbuetsita egoteak ez ditu beste prozedura-betebehar batzuk eskatzen. Hortaz, aztergai dugun kasua a) [oro har, izaera orokorreko proiektuei buruzkoa, generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez dutenak eta instantzia kudeatzaileak kokatzen duena ildo horretako txosten bat eginez] letran sartuko litzateke; kasu horietarako, jarraibideak aurreikusten du araua egiteko eskumena duen organoak generoaren arabera eraginaren txosten baten ordezkari generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez izatea behar bezala justifikatzen duen txosten bat egin beharko duela [jarraibideen II. eranskinean aurreikusitako baldintzetan]. Horrez gain, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, aldi berean, bere egiaztapen-txostena igorri beharko du.

A2).- Gainera, ikusi da instantzia sustatzaileak ez duela sartu enpresan izango duen eraginaren txostena, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzeko Legearen (ekainaren 28ko 16/2012) 6. artikuluan eskatzen den moduan (2012/07/06ko EHAA, 132. zk.)³, eta, era berean, ez ditu adierazi hori ez helarazteko arrazoiak.

Era berean, bidezkoa da txostenera ekartzea 2010eko abenduaren 28ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakia (xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituena). Erabaki horretan, besteak beste, ezartzen da abenduaren 8/2003 Legearen 10. artikuluan aurreikusten den memoria laburra baita hartu behar duela berariazko erreferentzia bat arau-proiektuak ekarriko dituen administrazio-kargen eraginari, erregulazio berriak beharrezkoak ez diren eragozpenak ez gehitzeko. Izapide honetan egiaztatzen da espedientearen agertzen den dokumentazioan ez dela agertzen prozedura egiteko memoria laburra, eta ohartarazten da ezinbestean sartu behar dela prozeduran proiektua gobernu-organoko eskudunak onartua izateko aurkeztu baino lehen, eta aipatutako lege-egindua eta akordio horretan adierazitako edukia jaso behar duela.

A3).- Bestalde, faltan da alderdi desberdinetatik lortu nahi den erregulazio zehatza azaltzen duten arrazoiaren justifikazio-memoria bat, posible diren hainbaten artean; gainera, azpimarragarria da, baita ere, dagoen harremana dela eta, ez agertzea espedientearen dokumentazioaren artean Centro de Estudios Sociales y Jurídicos Sur de Europa elkarterako adituen taldeak egindako txostena, Euskal Autonomia Erkidegoak kultu-aretoen legediaren arloan dituen eskumen-aukerei buruz. Hain zuzen, hori justifikazio-memoriak aipatzen du.

³ 2. zenbakian zera adierazten du: "Txostena nahitaezkoa izango da izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozeduran...".

A4).- Edonola ere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko Legearen (azaroaren 24ko 9/2004) 3.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat, aurreproiektua aholku-erakunde horren irizpenaren menpe jarri behar da onartu aurretik.

Horri dagokionez, gogorarazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzko Legearen (14/1994 Legea ekainaren 30eko a) 27.2 artikuluan ezarritakoarekin bat (*Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen azken xedapenetatik lehenengoan emaniko idazketaren arabera*), jakinarazi egin beharko zaizkiola Kontrol Ekonomikoko Bulegoari lege-aurreproiektuetan eta xedapen arautzaileen proiektuetan sartzen diren aldaketak, horiek Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren iradokizun- eta irizpen-proposamenen ondorio direnean (horretarako, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren zuzendariaren 2005eko urriaren 14ko 2/2005 zirkularrean ezarritakoa bete beharko da).

B) Testua eta edukia

B1).- Aztertu ditugu txosten honen II. atalean jasotako zerrendan aipatutako dokumentuak, eta badirudi aztertzen ari garen lege-aurreproiektuaren azken bertsio gisa aurkeztutako testuak *-gaur egun arte, 14. zenbakia du-* kontuan hartu dituela, bai eta aplikatu ere batzuetan, entzunaldi-izapidean parte hartu duten erakundeen alegazio batzuk, bai eta gaur egun arte araua lantzeko prozeduran aginduz parte hartu duten erakundeen erabakiak ere *-hain zuzen ere, erakunde horiek adierazi behar dute aztertzen ari garen arauaren proiektuan egindako aldaketak nahikoa ote diren ala ez haien alegazioetan eta txostenetan jasotako oharrei erantzun egokia emateko-*. Bestalde, A2) atalean aipatutako prozedura egiteko memoria laburra falta izateak ez du arrazoitzen espedientean zergatik baztertu diren gainerako alegazioak.

B2).- Aurkeztutako testuari dagokionez, balioetsi da, oro har, agintzen den arau-proiektuaren helburuekin bat datorrela, [*lehendakariaren otsailaren 2ko 1/2016 Dekretuaren arabera, gure autonomia-erkidegoa kultu-espazioei eta -aretoei buruzko araudi espezifiko batez hornitu behar da, espazio horiek eduki nahi dituzten izaera horretako komunitateen erlijio-askatasunerako eskubidea babesteko, administrazio publikoiei kudeaketarako irizpide egokiak eta irmoak emateko hirigintza-planeamenduaren esparruan, oro har, areto horiekin lotutako eskaerak administratzeko.*]; horri kalterik egin gabe, uste da egokia dela zenbait alderdi proposatzea eta honako gogoeta gomendio hauek egitea:

a).- 5. artikuluko 1. zenbakian "*berriak*" kalifikatzailea kendu beharko litzateke, erregulazioak eragiten dien antolamendu-planen identifikazioari ez diolako ekarpenik egiten; hori zehazteaz lehenengo xedapen iragankorra arduratzen da.

b).- Artikulu bereko 3. zenbakiari dagokionez, "*baliatu ahal izango dituzte*" adierazpenak adierazten du udalek diskrezionalitatea izango dutela beren hirigintza-gaitasunak gauzatzekoan erlijio-

ekipamenduetarako eta kultu-aretoetarako kokapen egokienak erabakitzeke; horren orde, komeni da "*baliatuko dituzte*" erabiltzea.

c).- Erregulazioaren xede den erregimen juridikoaren osaerari ekarpenik egiten ez diotela eta, beharrezkoak ez direnez agerikoak direlako, iradokitzen da 5. artikuluko 4. atalean jasotako zehaztapenak kentzea [*indarrean dagoen araudia aplikatzea erlijio-erabilerarako lurzorua zehazteko eta esleitzeko prozeduran*], bai eta 11. artikulua ere [*kultu-aretoak irekitzeari eta funtzionamenduan jartzeari buruzko hirigintza-lizentziei aplikagarri zaien araubide orokorraren mende egotea kultu-aretoak*].

d).- Aipatutako proiektatutako arauaren 1. artikulua (arauaren helburua jasotzen du), kulturako edo beste erlijio-xede baterako espazioak irekitzeari eta erabiltzeari buruzko baldintza teknikoak eta materialak ezartzeari buruzkoa, ez du ematen erabat betetzen denik "*Segurtasunari eta osasungarritasunari buruzko baldintza material eta teknikoak, kultu-aretoek nahitaez bete beharrekoak*" izenburupean aurkeztutako testuaren 8. artikuluan jasotako arauketan, artikulua hori gobernua gaitzera mugatzen baita, arau bidez ezartzeko. Planteamenduaren koherentzia berriz hausnartzea komeni da.

e).- Antolakuntza-egitura berari buruz arituz gero, komeni da izen bera erabiltzea batzordea aipatzeko 8. artikuluko 2. zenbakiko bigarren paragrafoan, 10. artikuluko 1. zenbakian, eta 14. artikuluko 2. zenbakian. 4 batzorde desberdin badira, horietako bakoitza zehaztasun handiagoz eratu beharko litzateke.

f).- Batzordeari edo batzordeei aitortzen zaien garrantzia dela eta [*aholkularia - erlijio-gaietarako espezifikoa*] komeni da, antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko alderdiak araudi-garapenerako utzita, proiektatutako testuak batzorde horiek bete beharreko funtzioen funtsezko alderdiak lantzea eta hein handiagoan zehaztea ordezkaturako erakundeen eta instantzien parte-hartzea. Halaber, esleitzen zaion kontsulta-organoaren izaerari dagokionez, proiektatutako araudi berriak osorik eragingarria izateko beharrezko elementutzat hartzen duena, komeni da lege-testu berean ezartzea horiek sortzeko epe bat, funtzionamenduaren erregulazioa, kideen izendapena eta eraketa; hori bat etor daiteke araudi-garapena onartzeko azken xedapenetatik lehenengoan adierazitakoarekin.

C) Antolamenduaren gaineko eragina.

C1).- Aztertutako arau-proiektuak, alderdi horretan, kontsultarako aholkularitza-batzorde bat sortzeko aurreikuspenaren eragina izango du ("*sortuko da*" esaten du aztertutako testuak), eta horri erreferentzia egiten zaio aurkeztutako

testuko 8.2 eta 14.2 artikuluetan. Batzorde horiek erlijio- eta kultu-askatasunak gauzatzeari berariaz eragin diezaioketen Euskadiko botere publikoen ekimen eta erabakien arloko aholkularitza eta informazioa eskainiko dute.

Eragin hori areagotu egingo litzateke aipatutako batzordea ez baletor bat "erlijio-gaietarako berariazko batzorde" izenarekin aipatzen denarekin. Testuaren arabera batzorde horri alde aurreko kontsulta egin beharko zaie udalbatzek kultu-aretoak irekitzeko eta erabiltzeko udal-lizentziarik ez duten eta jendea biltzen duten lokalak ixteko eta husteko erabakia hartzen dutenean, 10.1 artikuluan aipatutakoaren arabera. Espedientean agertzen den dokumentazioak ez du ezer argitzen horri dagokionez.

C2).- Nolanahi ere, eragin horren irismena nahasgarria da nolabait, espedientean ez baita helarazten informaziorik espedienteak berak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoan duen kokapenari buruz, ezta dagoeneko badauden edo proiektatu diren beste organo batzuekin izan dezakeen harremanari buruz ere [*hala nola "erlijio-gaietarako berariazko batzordea", proiektatutako testuan bertan aipatzen dena -10.1 art.-*].

C3).- Batzorde hori aipatzen duten proiektuko aurreikuspen soilen eduki lakonikoak *-nekez aipatzen dute haren funtsezko erregulazioa-*, eta espedientean haren premiari buruzko arrazoirik ez egoteak, ez dute ahalbidetzen iritzirik ematea haren antolamendua arrazoizkoa izateari, funtzioetan bikoizketa egoteari edo saihesteko neurriak ezartzeari buruz.

C4).- Uste da komenigarria dela [**aurreko B2) 3)** atalean aipatu den moduan] aztertutako proiektuak Jaurlearitzak hura sortzeko, funtzionamendua erregulatzeko eta kideen izendapena eta eraketa egiteko epe bat ezartzea.

D).- Ogasunarekin eta ekonomia- eta finantza-araubidearekin lotutako alderdietan izango dituen eraginak

Hori guztia esanda, aztergai dugun proiektuak ogasunaren eta ekonomia- eta finantza-araubidearen alorrean izan ditzakeen ondorioei erreparatu behar diegu, hau da, Euskadiko Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan izan dezakeen eraginari. Gai horiek zehaztuta daude Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bateginean (azaroaren 17ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartu zen); zehazki, haren 1.2. artikuluan (*ondarearen erregimena, aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozedura, Autonomia Erkidegoko ekonomia-jarduerak bete behar duen kontrol- eta kontabilitate-sistema, kontrataziorako erregimena, Euskadiko Diruzaintza Nagusiaren erregimena, tributuak eta bestelako diru-sarrera publiko eta pribatuak arautzea, zorpetzeko erregimena, bermeak emateko erregimena, laguntzak eta diru-laguntzak emateko erregimen orokorra, Autonomia Erkidegoak bere Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan dituen eskumenen erregimena, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskubideekin eta betebeharrekin zerikusia duen beste edozein erregimen*).

Horri dagokionez, esan daiteke Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaiei, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 1.2 artikuluan jasotakoei, ez diela ia eragiten eta eragin gabekotzat har daiteke.

E).- Eragina ekonomian eta aurrekontuetan

Atal honetan, autonomia-erkidegoko administrazio orokorrean izan dezakeen ekonomia- eta aurrekontu-eragina aztertuko dugu, nola gastuari dagokionez, hala diru-sarrerei dagokienez. Horretarako, aintzat hartuko da lehendakariaren otsailaren 2ko 1/2006 Dekretuaren bosgarren xedapena (aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematea agintzen duena): *“lege hau indarrean jartzearen ondorioz sortutako gastuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo udal-administrazioak ordainduko ditu, dagokion eskumen-arloaren arabera...”*.

1).- Gastuen azterketa:

Gogoan izan behar da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legearen 10.3 artikulua hau ezartzen duela (8/2003 Legea abenduaren 22koa): *«Era berean, espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du»*. Bestalde, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituena) 43. artikulua hau ezartzen du: *«Ekonomi eta araubidezko kontrola, ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 26. ataleko 2. lerroaldian aipatzen dena bezalakoa izan dadinean (“Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioaren organo eta erakunde guztien sorrerak eta ezabaketak ekonomiaren eta antolakuntzaren aldetik ikuskatzea, eta baita organo eta erakundeen aldaketak eta berregituraketak ere”), aplikagarriak izan daitezkeen atal horretako 1. idazatian aipatzen diren idazatietan jasotzen direnak hartu beharko ditu kontrol horrek eta horiei buruzko iritzia eman ere bai. Honako hauek ere jaso beharko dira, hau da, proposamenaren gai izan den antolaketaren arrazionalitatea, zerbitzuen koste, errendimendu eta emankortasunaren gain kontrolak izango dituen ondorioak eta eragina»; eta ondorio horietarako, «...honako hauek ere bidali beharko dira: a) Izaikia edo organoa sortze edo, hala behar bada, aldatze eta birregituratze beharra edo horren egokitasuna justifikatzea, era honetan, burutu behar diren edo horietan sartuko deneko programa ekonomiko eta aurrekontu mailakoak bete ahal izateko; b) Erabili beharko diren giza-baliabideen prebisioa, horien soldata, kostu eta eraginpean geldituko diren medio materialen deskripzioa. Ohiko gastua edo kapital mailakoa ekar dezaketen medioen arteko bereizketa egin beharko da; c) Jarduketaren kostuari eta zerbitzuen errendimendu edo utiltasunari buruzko ikerketa ekonomikoa. Hala behar izan dadinean, lau urterako Plan Ekonomikoa ere bai»*. Halaber, lehendakariaren otsailaren 2ko 1/2006 Dekretuaren (aurreproiektua egiteko prozedura hastea agintzen duena), seigarren xedapeneko 9. puntuak hau adierazten du: *“bosgarren atalean aurreikusitako*



memoria ekonomikoa egingo da, eta kasu horretan abian jarriko diren administrazio-kargak aztertuko ditu”.

Espedientean sartutako dokumentazioa aztertu ondoren, egiaztatu da ez dagoela dokumenturik agindu horietan aipatutako informazioa jasotzen duenik, eta, beraz, ez dagoela memoria ekonomikorik.

Proiektatutako arau-testua aztertetik ondorioztatu daiteke, bertan aurreikusitako (aurreko C) atalean aipatuak) batzordea (edo batzordeak) sortu, eta, ondorioz, eratu eta indarrean sartu ahal izatea gorabehera, ez duela sortzen eskuragarri dauden ohiko aurrekontu-baliabideei dagokionez aparteko finantzaketa behar duten betebeharrak ekonomiko zuzenik autonomia-erkidegoko administrazio publikorako, eta, beraz, ez duela berehalako eraginik gastuari dagokionez. Hala ere, adierazitako omisioa konpondu behar da espedientera sartuz dagokion memoria ekonomikoa. Dokumentu horretan landu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko langile, inbertsio edo gastu gehigarrien premia berriak dauden edo ez dauden, aurreikusitako batzorde (edo batzordeak) eratzetik eta indarrean jartzetik eratorritakoak nahiz horiekin lotutako gastuak eta horiek finantzatzekoak.

2).- Diru-sarreraren azterketa:

Espedientean ez da agertzen horri buruzko adierazpenik (zuzendu beharreko omisioa), baina, aurkeztutako arau-testua aztertu ondoren, ez da ikusi diru-sarreraren alderdian proiektatutako erregulaziotik eratorritako eraginik.

F).- Beste administrazio publiko batzuetan, partikularrengan eta ekonomian, oro har, izango duen eragina

Espedientean agertzen den justifikazio-memoria hau adieraztera mugatzen da: *“lege hau indarrean jartzeak aurreikusten duen heinean Euskadiko administrazio eskudunek beharrezkoak diren lurzoru-erreserben hirigintza-antolamendurako tresnak ezartzea eta kulturako eta beste erlijio-xede batzuetarako espazioak irekitzeko eta erabiltzeko eska daitezkeen baldintzak teknikoak eta materialak ezartzea, baliteke lege hau aplikatzean gastuak sortzea udaletan”.* Hala ere, ez du sartzen atal horretarako aurreikus daitezkeen gastuen kalkulu neurtua, eta ez da gainerakoez ere arduratzen.

Arestian aipatu bezala, beharrezkoa da memoria ekonomikoa gehitzea espedienteari, eta, halaber, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, legea aplikatzearen ondorioz gainerako administrazio publikoetarako (udal-arlokoak alde batera utzita), partikularrentzako eta ekonomia orokorrerako ekar ditzakeen kostuen ebaluazioa barne hartu beharko du.

IV. ONDORIOA

Erreferentziako espedienteko dokumentazioa aztertu ondoren, bulego honek uste du honako ohar eta gomendio hauek ematea komeni dela, labur-labur eta ondorio gisa:

- 1.-** Espedientean jasotako txosten juridikoaren arabera *-II. 6.-*, proiektuaren xede den ekimena bideragarria da. Bestalde, hasieran egindako proposamenarekiko zenbait ohar jasotzen ditu, baina esan dezakegu bulego honi aurkeztutako testuan kontuan hartu direla ohar horiek.
- 2.-** Balioesten da Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko Legearen (abenduaren 22ko 8/2003) eskakizunetara egokitzeko, txosten honetako A1) eta A2) ataletan adierazitako gabeziak zuzendu behar direla.
- 3.-** Hala eta guztiz ere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak erabaki behar du bideragarria den edo ez, eta bulego honi jakinarazi behar zaizkio izapidetzean egindako gomendio eta proposamenen ondorioz proiektuan gauzatutako aldaketak [A4)].
- 4.-** Gomendatzen dugu kontuan hartzea, eta, hala badagokio, aplikatzea, aurkeztutako testuaren zenbait alderdiri buruz txosten honen B2) ataletan jasotako oharra eta iradokizunak.
- 5.-** Proiektuak antolamendu-eragina izango duela aurreikusten da, txosten honetako C) atalean deskribatzen dena, eta, beraz, aurreikusitako kontsulta-eta aholkularitza-organoak justifikatu behar dira espedientean, eta, halaber, beste organo batzuen funtzioak bikoizten ez dituztela ere adierazi beharko da.
- 6.-** Espedientean horri buruzko justifikaziorik ez dagoenez, ezinezkoa da aztertutako testuko antolamendu-xedapenen arrazionaltasunari buruzko adierazpen egokirik egitea.
- 7.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari dagokion eragina, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauari buruzko Legearen testu bateginaren 1.2 artikuluan identifikatutakoa, ez da ia antzematen eta halakorik ez dagoela ere uler daiteke (D).
- 8.-** Erreferentziako espedientean jasotako dokumentazioa aztertuta, ondoriozta dezakegu aipagai dugun arau-proiektuak, hasiera batean, ez diola betebeharrak ekonomiko zuzenik sorraraziko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoari, egun eskuragarri dauden aurrekontu-baliabide arrunten gain finantzatu beharko denik, eta, hortaz, ez du zuzeneko eraginik gastuari dagokionez (E1) nahiz diru-sarrerei dagokienez (E2). Nolanahi ere, antolamendu-gailu bat sortzeari buruzko aurreikuspenak egiten ditu (C), eta hori eratzetik eta indarrean jartzetik kostuak erator daitezke. Alderdi horiek behar bezala landu beharko dira espedientean sartu beharreko memoria ekonomikoan (E1).
- 9.-** Espedientean agertzen den dokumentazioak ez du jasotzen proposatutako araudia aplikatzeak partikularrentzako eta ekonomia

orokorrerako ekar dezakeen kostuaren ebaluazioa, eta, beste administrazio publiko batzuei dagokienez, udalerrietan gastuak sor ditzakeela aipatu besterik ez du egiten, horiek zenbatu gabe. Gabezia horiek zuzendu behar dira (F).